

Maiatzak 26: Hauteskundeak

PSOEren «inaugurazio lasterketa» kritikatu du Milagros Rubiok

IRUÑEA

Milagros Rubiok, Batzarreko zerrendaburua Foru Parlamenturako, gogor kritikatu zuen atzo PSOE, azken egunotan egiten ari den «inaugurazio karrera» dela eta.

Inaugurazio horien bitartez, Milagros Rubioren esanetan, «sozialistek egunero publizitate orrialde bat nahi dute egunkarietan, dohai-nik». Batzarreko zerrendaburuaren esanetan, alderdi sozialistak aurrekontu publikoak eta herrilanak egiteko epeak bere interesetarako erabiltzen ditu, «lau urteotan egindakoarekin bat ez datorren irudia lortu nahian».

Inaugurazio politika horren aurrean, beste gai batzuek lehentasuna eduki beharko luketeela nabarmendu zuen atzo Milagros Rubio zerrendaburuak. Gai hauen artean, besteak beste, soldata soziala, gazte eta kul-

tur zentruak eta emakumeentzat zerbitzuak eskaini behar direla adierazi zuen Tuterakoak.

Politikarien jokabidearen araua zuzentasuna izan beharko lukeela gogoratu ondoren, «horren ordez oportunismo politikoa dakusagu —Rubioren hitzetan—, besteen aurrekontuen erabilpena eta luxuzko bazkariak eguneroko kontua bihurtu dira».

Iruñeko Udalako Batzarren alkategaia den Sabino Cuadrak, bere aldetik, udal aurrekontuen % 0,7 Hirugarren Mundura bideratzea proposatu zuen. Neurri hau, Cuadrak adierazi zuenez, «ez da karitatea, mendealdearen esplotazioa zuzentzeko saioa baizik».

Hirugarren Munduko herriekin lankidetzat proiektua egiteko eta Iruñeko biztanlegoa haien arazoez jabetu dadin erabili nahi du diru hori Batzarreko alkategaia.



Garapen ekonomiko eta ekologikoa batera doazela uste du Muruak.

EAK «teknologia eta natura» elkartu nahi ditu Gipuzkoan

I. ZARAUZ / DONOSTIA

«Garapen ekonomikoa garapen ekologikoarekin lotu» nahi du Eusko Alkartasunak Gipuzkoan, Imanol Murua, Diputaziorako hautagaiak atzo azaldu zuenez. EAren programaren helburua natura zaintzea eta garapena direla esan zuen Donostian Muruak. «Garapena bilatu behar da, garapen ekologikoa, baina natura zainduaz» adierazi zuen Muruak. «Tecnologia eta natura» izenarekin aurkeztu zuen Gipuzkoako diputatu nagusiak EAren programa, eta honen barruan ingurugiro eskolak eta parke naturalak bultzatuko dituztela esan zuen.

Imanol Muruarekin batera, Maribi Roteta Pasaiako alkatetzarako hautagaia, eta Jose Gurrutxaga Tolosako alkatetzarako hautagaia egon ziren.

Aurkezpenean nekazal munduak duen garrantzia azpimarratu zen, horregatik argi eta garbi adierazi zuten parke natural horietako maila ekonomiko eta ekologikoa hazi egin behar dela. Parke natural hauen garrantziaz gain, Gipuzkoako hondartzen baldintza onak eta garbitasuna aipatu zituen Muruak, eta kontrolatzeko zailak diren zaborteak salatu zituen. Industria leku ezberdinen garbiketa ere beharrezkotzat jo zuen Diputaziorako hautagaiak eta leku industrial degradatuak berreskuratzea beren helburu garrantzitsuenetarikoa bat zela adierazi zuen. Autobideari aipamen eginaz, Muruak gaineratu zuen beraiek proiektuaren hobekuntzarako ahalegin guztiak egin dituztela, eta sentikortasun apur bat beti izan duela Diputazioak orain arte egin duen lan eta proiektuetan.

■ **AUZOKO ALKATEA** Atzo goizean Luis Maria Sánchez Iñigo EAKo alkategaia esan zuenez, «auzoak hiriko parte aktiboak izatea lortu behar dugu eta honetarako aisia edo zereginen alternatibak eskaini behar zaizkie gazteei». Hau dela eta, «gaitasun propioak lituzkeen auzoko alkatea» sortzearen alde azaldu zen EAKo hautagia, «udalan auzoen hitza bermatzearren».

■ **ARRAUTZAK MOJEI** Euskadiko Ezkerrako hautagaiek zenbait dozentza arrautze eramango dizkie gaur Loiujo moja klarisei, euria egiteari utzi diezaion lortu asmoz. Ohitura zaharra da eskaintza hau, eta hauteskunde kanpainarako prestatuta zuten ekintza batzuk, euria dela eta, bertan behera utzi behar izan dituztelako joango dira arrautzekin mojenengan. Gaur arratsaldeko hiru t'erdietan egingo dute eskaintza.

■ **HIES ZENTRUA** Donostiako Loiola auzoan HIES gaixotasuna dutenentzat udalak egin nahi duen zentrua kritikatu zuen atzo Gregorio Ordoñez PPko alkategaia. Betania Etxean egin nahi dute zentru hori, eta bertan izan zen atzo Ordoñez. Beste leku batean egin dezatela eskatu zuen, inguruan zenbait eskola dagoelako. «HIES dutenentzat zentruak egitearen alde azaldu dugun finantzasun berarekin esaten diogu ezetz. Betania Etxean egiteari» esan zuen.

■ **TAUGRES-BASKONIAREN FINANTZAKETA** «Hauteskundeak hutsa» da, Javier Rojo PSE-PSOEko alkategaia ustez, EAJ alderdiko «Ansolak Arabako Diputazioetik Taugres-Baskoniaren finantzazioaz eman berri duen aldeketa». Joan zen astean Ansolak iragarri zuen datorren urtean taldea lagunduko dutela, eta Rojok gogoratzen du EAJtik «eta batez ere Cuerdarengandik jasan den etengabeko zirikatzeara Araba Pablioarako baimena ematerakoan».

Cuerdak sortarazi du trafikoaren arazoa Gasteizen, UAren eritziz

GASTEIZ

Jose Pizarro, UAK aurkeztu duen alkategaia Cuerdak alkateari egotzi dio trafikoaren arazoa. Aipatu arazoa Cuerdak «nahita» sortarazi duela ziurtatu zuen atzo Pizarrok, bere alderdiaren trafiko programa aurkeztekoan. Pizarrok esan zuenez, Cuerdak oztopoak jarri zizkion trafikoari, herritarrek kotxez ibiltzeari utziko ziotenaren ustetan, baina askorentzat kotxearen erabilpena beharrezkoa zela aintzat hartu gabe.

UAKo alkategaia trafikoaren

arazoa duela «hiru edo lau urte» hasi zela ziurtatu zuen, OTA jarri zutenean aparkalekuak gutxituz. Gainera semaforoak gaizki jarri ziren Pizarroren ustetan. Trafiko arazoak konpontzeko autobus geltokia zezen plaza ondora eramatea proposatu zuen. Semaforoak tokiz aldatzea nahi dute UAKoek, eta horregatik auzoetan ipintzearen alde agertu zen Pizarro alkategaia, erdigunetik «batzuk» kenduz. Hala ere, Gasteizko erdian aparkaleku gehiago egitea proposatu zuen eta malgotasun gehiago OTArekin kasuan.

ARGIBILI



"Gaur inoiz baino gehiago, justizia sozialak Euzko Alderdi Jeltzalearen helburu nagusia izaten jarraitzen du".

ELI GALDOS (EAJ)



"Garapena bilatu behar da, garapen ekologikoa, baina natura zainduz".

IMANOL MURUA (EA)



"Burujabetasunaren motorra bihotza da, baina gasolina dirua da; bihotzak diru barik ez du ezertarako balio".

JOSE ALBERTO PRADERA (EAJ)



"Eguzkiaren menpe ez dagoen turismo eskaintza garatu behar dugu".

XABIER GURRUTXAGA (EE)



"Jose Antonio Ardanaz maiatzaren 26an izango du aukera zein nebulosatan bizi den ohartzeko".

JOSE LUIS ELKORO (HB)



"Cuerdak nahita sortarazi du trafikoaren arazoa, herritarrek kotxea erabiltzeari utziko ziotelakoan".

JOSE PIZARRO (UA)

Lerro artean



Detaile, anekdota eta zertzeladak leku bat eskuratu dute egunotan prentsan, jakina, hauteskunde kanpainari esker. Maiz, buruzagi ospetsuaren adierazpen handigutsuak baino gehiago irakurtzen dira kanpainaren beste aurpegi bat erakusten duten lerro txiki horietan. Oso era ezberdinetan aurkitzen dira elementu «lagungarri» hauek: Flasch moduan, erreportaia gisa, argazki-albiste bezala... *Navarra Hoy* eta *El Diario Vasco* egunkariak dira ahalegin gehienak egiten dituztenak pasadizu bitxi horiek biltzeko eta kanpainak ematen dituen xehetasun horietatik ondorioak ateratzeko. *Navarra Hoy* egunkariak inaugurazioen «sukarra» biltzen zuen erreportaia baitan. Oinarrizko datua hauze zen:

Txinpartak

Nafarroan, urtarreletik hona 60 inaugurazio baino gehiago izan da. Legegintzaldia amaitzen ari denean, hainbeste «gauza» estrenatu behar horrek beta ematen dio erreportaiaren egileari honako galdera lutzatzeko: «*Bi urtetan behin hauteskundeak?*». Hauteskundeak maiztasun handiagoz egiteak, politikariak azkarrago eta eraginkorrerago ibiltzea ekarriko lukeenaren itxaropenaz luzatu du proposamen hori. Egunkari berean, igandean, beste kazetari batek larunbatean Iruñeak izandako «bisitak» alderatzen zituen. PPko Aznarrek zaratik gabe eta presaka pasatu bazen Iruñetik; aitzitik, EAJko Ardanza eta Arzalluz zapalapatatsu pasatu ziren Iruñeko kaleetatik, J. Legarda artikulugilearen ustez. EAJri dagokionez, Arzalluz Iruñean hilabete batean hiru aldiz izan dela ohartarazten zuen.

Gipuzkoako eremu politikoan, *El Diario Vasco* egunkariak

Anoetako kiroledegia EAJk igandean buruturiko ekitaldia astintzen zuen ederki. Hiru leku diferentetan aipatzen zuen egunkari honek EAJren mitinean izan zen txinparta (Market hitz egiten ari zela kea eta guzti atera zuena). Anekdota hori baino gehiago ere aipatu zituen. Adibidez, Ardanza eta Arzalluzen hitzaldien gaien banaketa. Edo HBren kontra aritzearen ezkutuko arrazoia: «Arzalluzek daki garaipena hemen galdutako hegemonia berreskuratzea dela. Horregatik, kanpaina Murua eta Galdosen artean zentratzea ez du nahi, baizik eta EAJ eta HBren artean». Beste punta batean, Bilbon, hautagai ezberdinek egin zituzten ibilaldiak aipatzen zituen *El Correo Español*ek: Roberto Lerxundi bizikletaz, Josu Ortuondo trenaz, Rodolfo Ares abionetaz, Jasone Irrargarri oinez.

PELLO URZELAI